

Ari gara

Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Hirugarren maila

Pello Mateos Yeste, Garbiñe Urreizti Lezertua



Argitalpena: Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua
Euskara Zerbitzua

Egileak: Pello Mateos Yeste eta
Garbiñe Urreizti Lezertua

Marrazkiak: Regina Salcedo Irurzun

Diseinua: RBK, Diseinu eta Komunikazioa

Imprimaketa: Ulzama Digital

Ari gara

EOIDNA-ko Euskara Departamentua abian jarri zenean, gure ikastetxe kolaboratzaileei ohikoa (maila bakoitzaren kurrikulua, ebaluazio irizpideak eta azterketak) eskaintzeaz gainera argi ikusi genuen Bigarren Hezkuntzako irakasleei zertxobait gehiago eskaini behar zitzaiela: guk proposatutako kurrikulua ikasgeletan aurrera eramaten lagunduko zion ikasmaterial xorta xume bat, alegia.

Ikasmaterial hau sortzera bultzatu gintuen arrazoia kurrikuluaren beraren izaeran aurkitu behar dugu. Izan ere, EOIDNA-ko kurrikulua prestatzerako orduan, HABE-k plazaratu zuena hartu genuen oinarritzat. HABE-ko kurrikuluak zerbait ona badu, eta alderdi on asko ditu, ikaslea komunikazio eraginkor eta praktikora bultzatzeko asmoa da. Horixe nahi genuen, ohiko irakasbide memoristikoa eta gramatikal horretatik aldentuta, Bigarren Hezkuntzako A eredu gure ikasleei komunikaziorako bide ematea.

Ari gara materialaren helburua ikasgelan lau trebetasunak lantzea da. Lau trebetasunetatik mintzamina izan da orain arte gelan lantzeko aukerarik izan ez duena, ohitura falta, batetik, eta gelako ikasle kopurua, bestetik, izan dira gure ustez trebetasun hau ez lantzearen arrazoi nagusiak. Guk eskaini dizuegun materialean, beraz, beste trebetasunen artean mintzamenari ere lekutxo bat egitea proposatu dizuegu.

Nozio komunikatiboa oinarri delarik, esaldiak egituratu ahal izateko edukin gramatikalak gelako irakasleak zabaldu beharko ditu, betiere material osagarria baita guk sortu duguna. Gure liburu honetan ez dira betiko eta beharrezkoak diren azalpen gramatikalak aurkituko, gure programazioan mailaka definituak agertzen direnak, hauek gelako irakasleak inork baino hobeto azalduko dituela uste dugu.

Ari gara ikasmateriala bi zatitan aurkeztu nahi izan dugu: irakaslearen liburua eta ikasleena. Lehenengoan irakasleek baliagarriak izan dakizkiekeen informazioak aurkituko dituzte, hala nola jarduera bakoitzaren euskarriak (testu-mota, kontestuko ezaugarriak, adierazpide linguistikoa...), prozedura, soluzioak... Bigarrenean ikasleek egin beharko dituzten zeregin guztiak, modu erakargarrian aurkeztuak, biltzen dira.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi genizkieke Nafarroako Gobernu Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien Zerbitzuari eta bereziki Euskara Zerbitzuari, hauen laguntzarik gabe lantxo honek ez baitzuen argia ikusi izango. Era berean, gure eskerrik beroena Nafarroako Gobernuko Ikasliburu eta Materialen Unitate Teknikoari argitalpen prozesu teknikoa bere gain hartu duelako. Azkenik ez genituzke aipatu gabe utzi nahi izango EOIDNA-ren proiektuan A ereduan aritu eta ari diren irakasle guztiak, haien ekarpena balio handikoa baita. Horiei ere eskerrak.

Aurkibidea

1. Hiria	7
2. Osasuna	27

5 Hiria



Hirian zehar bueltaka

1.A

Jarduera

Beti matrakan



Irakurmena



Mintzamena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna.** Mintzamena.
- **Testua.** Komikia.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: Komikia irakurri, ulertu eta kontatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistiko-testuak.**
 - Alderdi fonologikoa:
 - Asimilazio eta elipsiak
 - Doinuera: Euskal intonazioa
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Aditza: Agintera:
 - NOR: izan (zaitez, zaitezte), joan (zoaz), etorri (zatoz)
 - NOR-NORK: ukan (ezazu, itzazu, ezazue, itzazue)
 - nazazu(e), gaitzazu(e)
 - dadila/dezala
 - daitezela/dezatela
 - gaitezen/dezagun
 - Perpausa:
 - Perpaus bakuna:
 - Harridura perpausak: bai... -(e)la!, zein... -(e)n!, Zer / nolako... -(e)n!
 - Aginte perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Menperakuntza edo txertakuntza:
 - Konpletiboak: -(e)la, -(e)nik, -t(z)ea, -t(z)eak, -t(z)eko
 - Zehargaldera: -(e)n
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, baino lehen, aurretik, -t(z)ean, arte, bezain laster, -(e)n bitartean, ...
 - Kausazkoak: -(e)lako, ...eta, bait-..., -t(z)eagatik, ...
 - Elementu diskurtsiboak:
 - Gaitzespena adierazteko: “Horrela ezin da ... -rik egin”/ “Ez da ...-rik egiterik.”/ “Horrela egingo duenik ez dago.”/ “Ezin dut gehiago... horrekin”/ “Nire onetik ateratzen nau”/ “Ez dago hau jasango duenik.”
 - Ukatzeko, desadostasuna adierazteko: “Ez nago konforme/ados.”/ “Ez zait iruditzen.”/ “Ez dut uste horrela denik”/ “Ez nator bat zurekin.”

Prozedura

Ikasle bakoitzak, binaka jarrita, bere komikia irakurri ondoren, idatziz, gertatutakoaren laburpena egingo du. Gero, egindako laburpenak elkarri pasatu eta bestearen komikia ulertzen saiatuko dira. Bukatzeko, benetako komikiak trukatu, irakurri eta laburpenean irakurri dutenarekin bat datorren konprobatu beharko dute.

2.A

Jarduera

Telefono mugikorrak



Irakurmena

Edukiak:

- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamena.
- **Testua:** Gaiari buruzko informazioa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Informazioa irakurri, ulertu eta adostasuna-desadostasuna adieraztea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistiko-testualak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - Asimilazio eta elipisiak
 - Doinuera: euskal intonazioa
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen-Sintagma: Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak.
 - Adjetiboak: -ko eta -(r)en, izenlagunak sortzeko baliabidea.
 - Gradu-markak: -ago, -egi, -en, ahalik eta...
-en, gero eta...-ago, zenbat eta...-ago, orduan eta...-ago, askoz...-ago.
 - Graduatzailleak: aski, nahiko, oso, txit, izugarri, biziki, arras, guztiz, arrunt, era bat, zeharo,...
 - Aditz-partizipioa izenondo gisa: asmatua...
 - Adberbioak: Iritzi-adberbioak: agian, apika beharbada, dudarik gabe, itxuraz, badaezpada, noski, jakina, nire ustez, gure aburuz...
 - Aditza: Indikatiboko orainaldia
 - Nor
 - Nor-Nork: ukan, eduki, jakin, eraman, ekarri, esan (diot...)
 - Nor-Nori
 - Zer-Nori-Nork



Mintzamena

- Aditz-lokuzioak:
 - Nor: bizi izan, ari izan
 - Nor-Nork: nahi izan, balio izan, behar izan, ahal/ezin izan
- Aspektua: (orainaldia, lehenaldia)
 - Nor/Nor-Nork: ez-burutu puntukaria, burutua, ez-burutua, gertakizuna.
- Ahalezko orainaldia:
 - Nor: Izan
 - Nor-Nork: ukan
- Perpausa:
- Perpaus bakuna: omen (ei), ote partikulak.
- Perpaus elkartua:
 - Juntadura:
 - Emendiozkoak: eta
 - Hautakariak: ala, edo, edota, nahiz, zein
 - Aurkaritzakoak: baina, baizik, baino
 - Banatzailak: bai...bai, ez...ez, (alde)batetik...bestetik, -(e)la...-(e)la
 - Menperakuntza edo txertakuntza:
 - Konpletiboak: -(e)la, -(e)nik, -t(z)ea, -t(z)eak, -t(z)eko
 - Zehargaldera: -(e)n
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, baino lehen, aurretik, -t(z)ean, arte, bezain laster, -(e)n bitartean,...
 - Moduzkoak: -(e)n moduan, -(e)n bezala, -(e)n antzera, -(e)nez...
 - Kausazkoak: -(e)lako, ...eta, bait..., -t(z)eagatik,...
 - Kontzesiboak: nahiz eta...-(e)n, -(e)n arren...
 - Lokailuak:
 - Emendiozkoak: ere, gainera, bestalde, behinik behin...
 - Hautakariak: bestela
 - Aurkaritzakoak: ordea, berriz, aldiz
 - Ondoriozkoak: beraz, bada, orduan
 - Kausazkoak: izan ere, hain zuzen ere
- Elementu diskurtsiboak:
 - Gaitzespena adierazteko: “Horrela ezin da... -rik egin”/ “Ez da ...-rik egiterik”/ “Horrela egingo duenik ez dago”/ “Ezin dut gehiago... horrekin”/ “Nire onetik ateratzen nau”/ ”Ez dago hau jasango duenik.”
 - Ukatzeko, desadostasuna adierazteko: “Ez nago konforme/ados.”/ “Ez zait iruditzen” / ”Ez dut uste horrela denik”/ “Ez nator bat zurekin”
 - Iritzia emateko: “Eta zergatik ez duzu... -tzen?”/ “Oraingoan... bazenu?”/ “Eta oraingo honetan... baduzu?”/ Baina nik uste kexa idatziz egin beharko zenukeela”/ “Iruditzen zait...”/ “Esango nuke... -(e)la”/ “Nire ustez...”/ “Uste dut... -(e)la”/ “-t(z)earen alde, kontra nago”

Prozedura

Ikasleek, hirunaka jarrita, aurrean duten informazioa irakurri eta ulertu ondoren, gaiari buruzko adostasuna-desadostasuna adieraziko diote elkarri.

2.B
Jarduera

Hau kontatu digute

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamina
- **Testua:** Gaiari buruzko informazioa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Informazioa irakurri, ulertu eta galderei buruzko iritzia ematea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistiko-testualak:** (Ikus II.A. jarduera.)

Prozedura

Bigarren ariketari dagokion testua irakurri ondoren, segidan duten galderei erantzunez, eztabaida sortu beharko dute.

N. Telefonoan

NOZIOAK

Helburuak

Telefono deiei dagozkien nozioetan arreta jartzea.

Prozedura

Ikasleek fitxan agertzen diren funtzioak irakurri eta ikasi beharko dituzte.

3.

Jarduera

RiiiNNGG!!! Anakeleto hor al dago?



Mintzamena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Komikia.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-era: Irakurgai errealak.
 - Eginkizunak: Komikia irakurri, ulertu eta galderari erantzutea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistiko-testualak:**
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen-Sintagma: Adberbioak: Iritzi-adberbioak: agian, apika beharbada, dudarik gabe, itxuraz, badaezpada, noski, jakina, nire ustez, gure aburuz...
 - Perpausa:
 - Perpaus elkartua:
 - Menperakuntza edo txertakuntza:
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, baino lehen, aurretik, -t(z)ean, arte, bezain laster, -(e)n bitartean,...
 - Kausazkoak: -(e)lako, ...eta, bait-..., -t(z)eagatik,...
 - Kontzesiboak: nahiz eta...-(e)n, -(e)n arren....
 - Lokailuak:
 - Emendiozkoak: ere, gainera, bestalde, behinik behin...
 - Hautakariak: bestela.
 - Aurkaritzakoak: ordea, berriz, aldiz.
 - Ondoriozkoak: beraz, bada, orduan.
 - Kausazkoak: izan ere, hain zuzen ere.

Prozedura

Hiruko taldean jarrita, bakarka komikia irakurri eta jarraian duten galderari erantzun ondoren, taldeko hirurek erantzuna adostu beharko dute.

N.

Nondik nora?

NOZIOAK**Helburuak**

Nondik nora deklinabide kasuen erabilera landu eta ikastea.

Prozedura

Ikasleek hauen fitxan agertzen diren nozioak irakurri eta ikasi beharko dituzte.

4.

Donostia zure eskutan

Jarduera



Mintzamena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamena.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Informazio elkarri pasatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoa-testualak:**
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - IZEN-SINTAGMA: Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak
 - Adjetiboak: -ko eta -(r)en, izenlagunak sortzeko baliabidea.
 - Gradu-markak: -ago, -egi, -en, ahalik eta... -en, gero eta...-ago, zenbat eta ...-ago, orduan eta...-ago, askoz...-ago.
 - Graduatzaileak: aski, nahiko, oso, txit, izugarri, biziki, arras, guztiz, arrunt, erabat, zeharo,...
 - Aditz-partizipioa izenondo gisa: asmatua...
 - Adberbioak:
 - Aditzaren graduatzaileak: erabat, zeharo, Batere, guztiz, izugarri, ikaragarri...
 - Iritzi-adberbioak: agian, apika, beharbada, dudarik gabe, itxuraz, badaezpada, noski, jakina, nire ustez, gure aburuz...
 - Aditza: Indikatiboko orainaldia/lehenaldia:
 - Nor
 - Nor-Nork: ukan, eduki, jakin, eraman, ekarri, esan (diot...)
 - Nor-Nori
 - Zer-Nori-Nork

Aditz-lokuzioak:

Nor: bizi izan, ari izan

Nor-Nork: nahi izan, balio izan, behar izan, ahal/ezin izan

– Perpaua:

– Perpau bakuna:

omen (ei), ote partikulak.

– Perpau elkartua:

• Juntadura:

Emendiozkoak: eta.

Hautakariak: ala, edo, edota, nahiz, zein.

Aurkaritzakoak: baina, baizik, baino.

• Menperakuntza edo txertakuntza:

Konpletiboak: -(e)la, -(e)nik, -t(z)ea, -t(z)eak, -t(z)eko.

Zehargaldera: -(e)n.

Erlatibozkoak: -(e)n (erreferenteduna, erreferente gabea, erreferentedun eta erreferente gabe deklinatua).
-tako/dako.

Kontzesiboak: nahiz eta...-(e)n, -(e)n arren...

• Lokailuak:

Emendiozkoak: ere, gainera, bestalde, behinik behin...

Hautakariak: bestela.

Aurkaritzakoak: ordea, berriz, aldiz.

Ondoriozkoak: beraz, bada, orduan.

Kausazkoak: izan ere, hain zuzen ere.

Prozedura

Ikasleek, binaka jarrita, informazioa trukatu beharko dute. B ikasleak galderak eginez, A ikasleak duen informazioa lortu beharko du Donosita tourrek egin duen ibilbidea ezagutu ahal izateko.

5.A

Jarduera

Botiloiareen aurka

Irakurmena



Mintzamina

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamina.
- **Testua:** Gaiari buruzko informazioa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Informazioa irakurri, ulertu, alde onak eta txarrak zerrendatu eta iritzia ematea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: Gai bati buruz iritzia ematea.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:** (Ikus II.A. JARDUERA)

Prozedura

Ikasleak botiloiareen legeaz mintzatuko dira. Hirunaka jarrita, fitxan duten informazioa irakurri eta ulertu ondoren, alkoholaren aurkako neurrien alde onak eta txarrak zerrendatu eta neurri hauen alde ala kontra dauden azalduko diote elkarri. Bukatutakoan talde txikietan jaso dutena talde osoari aurkeztuko diote.

5.B

Jarduera

Ba nire iritzia honetaz...

Irakurmena



Idazmena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Idazmena.
- **Testua:** Aldizkariko artikulua.
- **Kontestua:**
 - Idazketaren xedea: Gaiari buruzko iritzia eman eta ikaskideei ulertaraztea.
 - Igorle-hartzaile harremana: Ikasle-egunkaria.
 - Komunikazio-kanala: Artikulua.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistiko-testualak:** Azalpena
 - Sarrera: Indikatiboaren orainaldia eta geroaldia.
Argudiozko elementuak
Helburuzkoak
Justifikaketa
 - Garapena: Lokailuak.

- Emendiozkoak: eta, ere, gainera, bestalde, behintzat, gutxienez...
 Aurkaritzakoak: baina, aldiz, hala ere, baizik, dena den...
 Kausazkoak: horregatik, hori dela eta...
 Hautakariak: bestela.
 Banatzaileak: batetik...bestetik, alde batetik...beste aldetik, bata...bestea...
 Ordena adierazleak: lehenik...bigarren, hasteko, hasieran, ondoren,
 jarraian, gero, azkenik, bukatzeko...
 Adibideak emateko adierazleak: adibidez, esaterako, hau da, bestela
 esanda, hala nola,...
- Ondorioak: Ondoriozko lokailuak.
 Indikatiboko baldintzazkoak

Prozedura

Ikasleek botiloiaaren aurkako legeaz pentsatzen dutena idatziz eman beharko dute, egunkari batean kaleratzeko moduko artikulua idatziko dute. Baina lehenengo, gai honi buruzko beste zenbait iritzi irakurri beharko dituzte.

Bakarka, bakoitzak bere iritzia idatziz eman ondoren, hiruko taldean jarrita idatzitakoa elkarri irakurriko diote. Ulermena ziurtatu behar denez, entzuten ari denak ulertzen ez badu, irakurtzen ari denari jakinarazi beharko dio.

6.

Jarduera

“Guinness-ak”



Irakurmena



Mintzamena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamena.
- **Testua:** Deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Munduko record-ak gogoratu eta kontatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoa-testualak:**
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - IZEN-SINTAGMA: Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak
 Adjetiboak: -ko eta -(r)en, izenlagunak sortzeko
 baliabidea.
 - Gradu-markak: -ago, -egi, -en, ahalik eta...
 -en, gero eta...-ago, zenbat eta ...-ago,
 orduan eta...-ago, askoz...-ago.

- Graduatzaileak: aski, nahiko, oso, txit, izugarri, biziki, arras, guztiz, arrunt, erabat, zeharo,...
 - Aditz-partizipioa izenondo gisa: asmatua...
 - Adberbioak: • Aditzaren graduatzaileak: erabat, zeharo, Batere, guztiz, izugarri, ikaragarri...
 - Iritzi-adberbioak: agian, apika, beharbada, dudarik gabe, itxuraz, badaezpada, noski, jakina, nire ustez, gure aburuz...
- Aditza: Indikatiboko orainaldia/lehenaldia:
- Nor
 - Nor-Nork: ukan, eduki, jakin, eraman, ekarri, esan (diot...)
 - Nor-Nori
 - Zer-Nori-Nork
- Aditz-lokuzioak:
- Nor: bizi izan, ari izan
 - Nor-Nork: nahi izan, balio izan, behar izan, ahal/ezin izan
- Perpausa:
- Perpaus bakuna:
- Omen (ei), ote partikulak.
- Perpaus elkartua:
- Juntadura:
 - Emendiozkoak: eta.
 - Hautakariak: ala, edo, edota, nahiz, zein.
 - Aurkaritzakoak: baina, baizik, baino.
 - Menperakuntza edo txertakuntza:
 - Konpletiboak: -(e)la, -(e)nik, -t(z)ea, -t(z)eak, -t(z)eko.
 - Zehargaldera: -(e)n.
 - Erlatibozkoak: -(e)n (erreferenteduna, erreferente gabea, erreferentedun eta erreferente gabe deklinatua).
-tako/dako.
 - Kontzesiboak: nahiz eta...-(e)n, -(e)n arren...
 - Lokailuak:
 - Emendiozkoak: ere, gainera, bestalde, behinik behin...
 - Hautakariak: bestela.
 - Aurkaritzakoak: ordea, berriz, aldiz.
 - Ondoriozkoak: beraz, bada, orduan.
 - Kausazkoak: izan ere, hain zuzen ere.

Prozedura

Ikasleek, taldeka jarrita, adibidetzat ematen zaien record-a irakurri eta ulertu ondoren, eza-gunak izan ditzaketan munduko record-ak gogoratu, ikaslearen fitxan jaso eta elkarri adierazi beharko diote.

N.

Jan, jaTEN eta janGO

NOZIOAK

Helburuak

Aditzaren aspektua landu eta ikastea.

Prozedura

Ikasleak fitxan duena irakurri, ulertu eta ikasiko du.

7.

Jarduera

San Ferminetan jan...ordu guztietan!!



Irakurmena



Mintzamina

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** irakurmena.
- **Testua:** San Ferminei buruzko informazioa.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-era: Irakurgai erreala.
 - Eginkizunak: Informazioa jaso, ulertu eta eskatzen zaiona betez testua moldatzea.
 - Gaia: Ikaslearen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoak: DESKRIPENA**
 - Adjetiboak: kualifikatiboak
Atzizki adjetibatzaileak: -garri, -tar, -dun, -ti, -tsu
 - Konparaketa: graduazioa
 - Aditza: Denbora: orain eta lehenaldia
Aspektua: ez-burutu puntukaria, ez-burutua, burutua
 - Dimentsio-adierazleak: aurre, atze, azpi, gain, barru, ondoan, goian, behean, ezkerrean, eskuinean...
 - Objektuen xedea eta izaria adierazteko:
Xedea: -t(z) eko
Erlatiboa: -e(n)
- Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik,..

Prozedura

Ikasleak, bakarka, San Ferminei buruzko testua irakurri, ulertu eta berridatzi beharko du bertan agertzen diren aditzak moldatuz. Testuan San Ferminetan zer eta nola jaTEN den azaltzen da eta ikasleak bere Sevillako lagunari, datozen San Ferminetarara etortzen bada, zer eta nola janGO duen adierazi beharko dio

8.

Jarduera

Iruñean zehar



Irakurmena



Mintzamena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Iruñeri buruzko informazioa.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-era: Irakurgai erreala.
 - Eginkizunak: Irakurritako informazioa plan bat prestatzeko erabiltzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak: DESKRIBAPENA.**
 - Adjetiboak: Kualifikatiboak
 - Atzizki adjetibatzaileak: -garri, -tar, -dun, -ti, -tsu
 - Konparaketa: graduazioa
 - Aditza: Denbora: orain eta lehenaldia.
 - Aspektua: ez-burutu puntukaria, ez-burutua, burutua.
 - Dimentsio adierazleak:
 - Goitik beherako dimentsioa: goi/behe; azpi/gain; ipar/hego;...
 - Zeharkako dimentsioa: ezker/eskuin; alde bat/beste alde; mendebalde/ekialde;...
 - Hirugarren dimentsioa: gertu/urrun; aurre/atze; barru/kanpo;...
 - Denboraren dimentsioa: ordua, egunak, hilabeteak, denborazko lokailuak,...
 - Objektuen xedea eta izaria adierazteko:
 - Xedea: -tzeko
 - Erlatiboa: -(e)n
- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamena.
- **Adierazpide linguistiko-testualak:**
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - IZEN-SINTAGMA: Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak.
 - Adberbioak: Iritzi-adberbioak: agian, apika, beharbada, dudarik gabe, itxuraz, badaezpada, noski, jakina, nire ustez, gure aburuz...
 - Aditza: Indikatiboko orainaldia:
 - Nor
 - Nor-Nork: ukan, eduki, jakin, eraman, ekarri, esan (diot...)
 - Nor-Nori
 - Zer-Nori-Nork
 - Indikatiboko baldintzazkoak:
 - NOR: Izan
 - NOR-NORK: ukan
 - Aditz-lokuzioak:
 - NOR: bizi izan, ari izan
 - NOR-NORK: nahi izan, balio izan, behar izan, ahal/ezin izan
 - Aspektua (orainaldia, lehenaldia):
 - NOR/NOR-NORK: ez-burutu puntukaria, burutua, ez-burutua, gertakizuna.

Ahalezko orainaldia:

NOR: Izan

NOR-NORK: Ukan

– Perpausa:

– Perpaus elkartua:

• Juntadura:

Emendiozkoak: eta

Hautakariak: ala, edo, edota, nahiz, zein

Aurkaritzakoak: baina, baizik, baino

Banatzailleak: bai...bai, ez...ez, (alde)batetik...bestetik, -(e)la...-(e)la

• Menperakuntza edo txertakuntza:

Konpletiboak: -(e)la, -(e)nik, -t(z)ea, -t(z)eak, -t(z)eko

Zehargaldera: -(e)n

Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, baino lehen, aurretik, -t(z)ean, arte, bezain laster, -(e)n bitartean,...

Moduzkoak: -(e)n moduan, -(e)n bezala, -(e)n antzera, -(e)nez...

Kausazkoak: -(e)lako, ...eta, bait..., -t(z)eagatik,...

Baldintzazkoak: (baldin) ba-

Kontzesiboak: nahiz eta...-(e)n, -(e)n arren....

• Lokailuak:

Emendiozkoak: ere, gainera, bestalde, behinik behin...

Hautakariak: bestela

Aurkaritzakoak: ordea, berriz, aldiz

Ondoriozkoak: beraz, bada, orduan

Kausazkoak: izan ere, hain zuzen ere

– Elementu diskurtsiboak:

• Gomendatzeko: “Zergatik ez duzu...-tzen?”/ “Bururatu zaizu...-tzea?”/ “Hobe duzu /zenuke...-tzea?”/ “Nik zuk bezala,...”

• Iritzia emateko: “Eta zergatik ez duzu... -tzen?”/ “Oraingoan... bazenu?”/ “Eta oraingo honetan... baduzu?”/ “Baina nik uste kexa idatziz egin beharko zenukeela.”/ “Iruditzen zait...”/ “Esango nuke... -(e)la.” / “Nire ustez...”/ “Uste dut... -(e)la.”/ “-t(z)earen alde, kontra nago”.

Prozedura

Estatu Batuetako hamar ikasle Iruñean astebete pasatzera etorriko direnez, ikasleak taldeka jarrita, hauen astebeteko planaren antolaketa egin beharko dute.

Ikasleak launaka jarriko dira, A, B, C, eta D ikasleak. Ikasle bakoitzak plan orokorraren zati bat prestatu beharko du eta bere proposamenak taldeko beste ikasleen proposamenekin adostu beharko ditu plan orokorra egin ahal izateko.

A ikasleak..... Pasealdiak Iruñean barna.

B ikasleak..... Iruñea inguruko ekintzak: nora, nola, zertara eta nork gidatu.

C ikasleak Non jan, non lo egin eta non parrandan ibili.

D ikasleak Museoak eta erosketak.

Ariketa hau egiteko Iruñeari buruzko informazioa, fixetan dutena, irakurri, landu eta eskaintzen artetik ikasleari interesatzen zaiona aukeratuz, bere proposamenak prestatu beharko ditu.

Plan orokorra prestatutakoan, talde txiki bakoitzak antolatutako plana talde osoari aurkeztuko dio. Denen artean, aurkeztutako planen artetik bat aukeratuko da.

9.

Jarduera

Aspaldiko Iruñea



Entzumena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Entzumena.
- **Testua:** Telebistako erreportajea.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: Bitartekoak medio (telebista).
 - Gaia: Ondoren eskatuko dena aurreikusteko modukoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak: Egindako galderari erantzun.
- **Adierazpide linguistiko testualak:**
 - Elementu diskurtsiboak
 - Ez-hitzezko kodea: irudiak, keinuak, etenak isiluneak...
 - DESKRIBAPENA.
 - Dimentsio adierazleak:
 - Goitik beherako dimentsioa: goi/behe; azpi/gain; ipar/hego;...
 - Zeharkako dimentsioa: ezker/eskuin; alde bat/beste aldea; mendebalde/ekialde;...
 - Hirugarren dimentsioa: gertu/urrun; aurre/atze; barru/kanpo;...
 - Denboraren dimentsioa: ordua, egunak, hilabeteak, denborazko lokailuak,...
 - Prozesuen eta egoeren deskribapenetan:
 - Definizioak, adjetiboak, denbora-adierazleak...

Prozedura

Grabazioa 2-3 aldiz entzun eta gero, ikasleak fitxan agertzen diren tokiak aspaldiko Iruñean nolakoak ziren jaso beharko du.

Bukatutakoan talde osoko zuzenketa egingo da.

N

Egin ahal duguna eta ezin duguna egin

NOZIOAK

Helburuak

Ahalera, ezin izan eta ahal izan, landu eta ikastea.

Prozedura

Ikasleak fitxan duena irakurri, ulertu eta ikasiko du.

10.

Jarduera

Zilegi dena eta ez dena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** San Ferminei buruzko informazioa..
- **Kontestua:** – Komunikazio-era: Irakurgai erreala.
– Eginkizunak: Informazioa jaso, ulertu eta eskatzen zaiona betetzea.
– Gaia: Ikaslearen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoa:** (Ikus VII. JARDUERA)

Prozedura

Bakarka fitxan agertzen dena irakurri eta ikasi ondoren, San Ferminekin segituz, San Ferminetan zer den zilegi eta zer debeku ezagutuko dute eskaintzen zaien testua irakurriz.

Binaka jarrita, A ikasleak zer den zilegi irakurri eta dagozkion hutsuneak beteko ditu eta B ikasleak zer den debeku irakurri eta berari dagozkionak beteko ditu. Bukatutakoan, bi ikasleak atera dutena elkarri azalduko diote biek informazio osoa eduki ahal izateko, zilegi eta debeku dena.

SOLUZIOAK	
Zilegi dena	<ul style="list-style-type: none"> - Beraz, San Ferminetan jendea pelma jarri ahal da. - Beraz, jendea zerrikerian aritu ahal da. - Beraz, batzuetan aldamenekoa zikindu ahal da. - Beraz, San Ferminetan ia edozer gauza egin ahal da.
Debeku dena	<ul style="list-style-type: none"> - Beraz, San Ferminetan ezin da lanean ari direnei traba egin. - Beraz, ezin da mutu-joka ibili. - Beraz, ezin dira animaliak gaizki tratatu. - Beraz, ezin dira jabetza pribatu nahiz publikoak hondatu. - Beraz, ezin da klean zabor botaka ibili.

11.
Jarduera

San Ferminak niretzat



Idazmena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Idazmena.
- **Kontestua:**
 - Igorle-hartzaile harremana: ikasle-ikasle.
 - Komunikazio-kanala: idazkia.
 - Erabilera-esparrua: aisialdikoak.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoak:** DESKRIBAPENA.
 - Adjetiboak: Kualifikatiboak
Atzizki adjetibatzaileak: -garri, -tar, -dun, -ti, -tsu.
 - Konparaketa: graduazioa
 - Aditza: Denbora: orainaldia eta lehenaldia.
Aspektua: ez-burutu puntukaria, ez-burutua, burutua
 - Dimentsio adierazleak:
 - Goitik beherako dimentsioa: goi/behe; azpi/gain; ipar/hego;...
 - Zeharkako dimentsioa: ezker/eskuin; alde bat/beste alde; mendebalde/ekialde;...
 - Hirugarren dimentsioa: gertu/urrun; aurre/atze; barru/kanpo;...
 - Denboraren dimentsioa: ordua, egunak, hilabeteak, denborazko lokailuak,...
 - Objektuen xedea adierazteko:
 - Xedea: -t(z) eko
 - Erlatiboa: e(n)

Prozedura

Ikasleak San Ferminei buruz dakiena, ezagutzen duena, sentitzen duena, idatziz eman behar du. Beste ikaskideak izango dira bere idazkiaren hartzaileak, ikasleak San Ferminez dakiena edo sentitzen duena besteei transmititu beharko die.

Bukatutakoan, ikasle bakoitzak egin duena talde osoan irakurriko du eta irakurri bitartean irakasleak Sanferminetako irudiak jarriko ditu bideoan, ikasleak transmititu nahi duena girotzeko. Honetarako komenigarria litzateke ikasleak kontatu nahi duena ahalik eta gehien deskribatzea.

**ZER
IKASI
DUT?**

Helburua

Ikasgai honetan ikasi duena burura ekarri eta honetaz konturatzea.

Prozedura

Ikaslearen orrian duten fitxa bakarka bete eta gero, hirunaka jarri eta hiru fitxak konparatuko dituzte (horrela galduago dabilenari falta zaiona emango zaio).

2

Osasuna

Osasuna munduko ondasuna

1 Jarduera	Sendagileak, petrikiloak...
Mintzamina	<p>Edukiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Trebetasuna. mintzamina. <p>Prozedura</p> <p>Atariko jarduera honetan mintzari ekingo diote osasun alorrean sartzeko. Honela hartu beharko da jarduera hau: berotze ariketa gisa. Talde txikietan jarrita, minutu gutxi batzuk emango dituzte hizketan. Ariketa agortua dagoenean, hurrengora pasatuko gara.</p>
2 Jarduera	Hotzeria
Entzumena	<p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Trebetasuna: entzumena. • Testua: bi pertsonaren arteko elkarrizketa, senar-emazte batzuen artekoa. <ul style="list-style-type: none"> Ezaugarriak: 1. Erregistroa: informala. 2. Lexikoa: osasun arloari buruzkoa. 3. Helburua: sintomak, gorputz egoerak deskribatzen ikastea. 4. Adierazpide linguistikoak: Geroago (nozioetan) azalduko direnak: <ul style="list-style-type: none"> • Mina adierazteko: nongo(a) + mina izan / minez egon. • Gorputz egoerak adierazteko: beroak egon / bero izan... • Hitzak osatzeko bideak: atzizkiak: -ka. <p>Prozedura</p> <p>Jarduera honetan elkarrizketa bi aldiz adituko dute. Ulermen xehea erabiliko du ikasleak sintomak ulertu eta jasotzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hona hemen elkarrizketaren transkripzioa: <div data-bbox="264 1688 1441 1749" style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center;"> <p>Elkarrizketa: Emaztea etxean dago eta senarra heldu da</p> </div> <p>Senarra: Epa Karmele, heldu naiz. Atxiiiis!</p> <p>Emaztea: Jesus! Ene, ez duzu batere aurpegi ona!</p> <p>Senarra: Ba ez, egia esan oso goiz txarra pasa dut lanean. Hau gorputzaldi eskasa!</p> <p>Emaztea: Bai, begietan igartzen zaizu, malkotan dituzu eta.</p> <p>Senarra: Begiak bakarrik balira... Burua lehertu beharrean dut. Atxiiiis! Gainera batzuetan beroak nago, beste batzuetan hotzak. Burutik beherako hotzikara dut.</p>

Emaztea: Seguru sukarra izango duzula, eta nola gainera! Bekokia bero-beroa duzu.
Senarra: Hau nazka! Atxiiiis! Mukizapia sudurrean eta doministikuka eman dut goiz osoa.

Emaztea: Egon lasai! Eseri eta jarri termometroa besapean. Zorabiorik izan al duzu?
Senarra: Ez, hori ez, eta ez dut botagalerik izan. Baina eztarriko mina dut. Ezin dut irentsi. Pintxo erdia utzi behar izan dut kafea hartzera atera naizenean.

Emaztea: Orduan bihar eztulka hasiko zara. Ea termometro hori! ... 39 duzu. Hartu aspirina bat eta zoaz ohera. Ez ahaztu mukizapiak, beharko dituzu eta! Sudurra gorri-gorria duzu, pailazoa dirudizu, ja, ja...! Jatea ez zaizu kome-ni, likido asko edatea, berriz, bai; oraintxe emango dizut limoi-ura, egarriak ez bazaude ere. Izugarrizko gripea harrapatu duzu. Pena da baina igande honetan ezin izango zara futbol partidua ikustera joan.

Senarra: Kaka zaharra! Igande honetan Osasunak R. Madrilen kontra jokatuko du.
Emaztea: Tira, tira ohera, ea sendatzen zaren!

Dituen sintomak	Ez dituenak
<ul style="list-style-type: none">• Buruko mina• Hotzikara• Sukarra• Eztarriko mina	<ul style="list-style-type: none">• Zorabioa• Botagalea••

Gogoan hartu



Helburua

Osasunaren inguruko lexikoa (substantiboak batez ere) aurkeztu eta bereganatzen joatea. Ariketa honetan agertzen diren hitz guztiak 2. jardueran (entzumenean) azaldukoak dira.

Prozedura

Marrazki bakoitzari dagokion zenbakia jarri behar dute.

Soluzioak:



N

Mina, gorputz egoerak...

Jarduera honen helburua nozio zehatz baterako (gaixotasunen sintomak eta gorputz egoerak deskribatzeko) aurreko jardueraren batean agertu diren baliabide linguistikoak eskaintzea da, horiei errepara diezaieten. Hauexek dira oraingoan eskaintzen ditugunak:

- Mina adierazteko: nongo(a) + mina izan / minez egon
- Gorputz egoerak adierazteko: beroak egon / bero izan...
- Hitzak osatzeko bideak: atzizkiak: **-ka**

Atzizkien kasuan, aurrena azalpen xume bat jarri dugu, gero **-ka** atzizkiarena eta bukatzeko ariketa batzuk. Hauexek dira soluzioak:

- 1 Foruzainek manifestaria bultzaka atera zuten Parlamentutik.
- 2 Poltsiko telefonotik etxera deika aritu zen, baina inork ez zuen hartu.
- 3 Gaur ezin izan dut lorik egin gau osoan; izan ere aldameneko etxeko zakurra zaunkaka aritu da isildu gabe.
- 4 Bart kontzertuan jendea oso gustura geratu zen kantariarekin eta bukaeran altxatu eta txaloka hasi zen.
- 5 Felipe pozik eta txistuka zihoan gaur goizean lanera, txori bat baino alaiago.
- 6 "Nazkatuta nago txakur horretaz. Isiltzen ez bada, harrika egingo diot".
- 7 Hartu zuen katarroaren eraginez, eztulka / doministikuka eta doministikuka / eztulka pasatu zuen egun osoa Fernandok.

Noizko emango didazu txanda?

Edukiak

- **Trebetasuna:** entzumena
- **Testua:** bi pertsonaren arteko elkarrizketa, anbulatorioko administrari eta deitzen duen pertsonaren artekoa.

- Ezaugarriak:
- 1.- Erregistroa: formala.
 - 2.- Lexikoa: denbora nozioak, txanda eskatzeko esapideak...
 - 3.- Helburua: txanda hartzen ikastea.
 - 4.- Adierazpide linguistikoak: Geroago (nozioetan) azalduko direnak:
 - Txanda adierazteko esapideak: -norako (...kontsultarako...), noizko, kortesiazko hipotetikoa, zertarako.

Prozedura

Jarduera honetan elkarrizketa bi aldiz adituko dute. Ulermen xehea erabiliko du ikasleak galdera bakarrari erantzuteko.

Hona hemen elkarrizketaren transkripzioa:

Elkarrizketa: Anbulatorioko administraria eta deitzen duena

- Administ: Milagrosako anbulatorioa, egun on!
- Gaixoa: Bai, egun on! Begira, txanda eskatzeko deitzen dut, Arrieta medikuaren kontsultarako.
- Administ: Bai, izen-abizenak emango dizkidazu?
- Gaixoa: Bai, Elena Urizar Azpitarte.
- Administ: (Ordenagailu hotsa) Ederki. Biharko izan beharko du, gaur dena beterik baitu.
- Gaixoa: Barkatu, noizko esan duzu... ez dut ulertu eta...
- Administ: Biharko, biharko, gaur dena beterik duelako.
- Gaixoa: Bueno, zer egingo zaio ba; nik gaurko nahi nuen, baina ezin bada, biharko izan beharko du. Eta zer ordutan?
- Administ: Zazpiak hamar gutxitan
- Gaixoa: Konforme, eskerrik asko
- Administ: Agur

Soluzioa

– Noizko eman diote txanda?

BIHARKO

N. Txanda eskatzeko

Jarduera honen helburua nozio zehatz baterako (txanda eskatzeko) aurreko jardueraren batean agertu diren baliabide linguistikoak eskaintzea da, horiei errepara diezaieten. Hauexek dira oraingoan eskaintzen ditugunak:

- Txanda adierazteko esapideak: -norako (...kontsultarako...), noizko, kortesiazko hipotetikoak, zertarako.

5

Jarduera

Sendagilearenean**Edukiak**

- **Hizkuntz trebetasuna:** entzumena.
- **Testua:** bi pertsonaren arteko elkarrizketa, sendagile eta gaixo baten artekoa.

- Ezaugarriak:
- 1.- Erregistroa: formala.
 - 2.- Lexikoa: osasuna arloari buruzkoa.
 - 3.- Helburua: sintomak, gorputz egoerak deskribatzen ikastea.
 - 4.- Adierazpide linguistikoak: Geroago (nozioetan) maiztasuna azaltzeko beharrezkoak direnak:
 - Lau ordutatik lau ordutara, egunean behin...

Prozedura

Elkarrizketa lehendabiziko aldiz entzun ondoren, azaldu zaizkien hitz berrien hausnarketa (sintoma gehiago deskribatzeko) egingo dute. "A" ariketan negritan dauden hitz zatiei erreparatuta, saiatuko dira hitzei esanahiari antzematen. "B" ariketan hitz berberen gaztelerazko itzulpenak izango dituzte, gurutzegraman moduan emanak.

Gero berriz entzungo dute elkarrizketa eta "C" ariketan ulermen xehea erabiliz, gaixoak dituen sintomak jaso beharko ditu tabla batean "bai-ez" erako galderen bidez.

Azkenik, "D" ariketan botiken iragarkiak dituen bideo zati bat ikusiko dute. Iragarki horien artean "A" ariketan entzun duten elkarrizketan, sendagileak gaixoari errezetatzeko diona aurkitu eta benetako errezetaren marrazkian erantzuna jarri behar dute.

Hona hemen elkarrizketaren transkripzioa:

Elkarrizketa: Sendagilea – gaixoa. Sendagilearen kontsultan

Sendag: Arratsalde on! Antonio Borrás del Barrio jauna, ezta?
 Gaixoa: Bai.
 Sendag: Beno, ba Antonio, azaldu zer duzun.
 Gaixoa: Ba, kontua da duela bi astetik hona sabeleko mina dudala. Bazkaldu eta berehala hasten da min hori, askotan oso min handia dut.
 Sendag: Bihotzerrea ere baduzu?
 Gaixoa: Bai, urdaila sutan banu bezala.
 Sendag: Erre sentsazio hori duzunean, botaka egiten duzu?
 Gaixoa: Ez, hori ez.
 Sendag: Eta beherakoa izan duzu azken aste honetan?
 Gaixoa: Ez.
 Sendag: Idorreriarik?
 Gaixoa: Ez
 Sendag: Sabela handiturik duzu?
 Gaixoa: Bai, pixka bat bai.
 Sendag: Beno, azterketa sakonik egin gabe, digestioarekin arazoren bat duzula ematen du. Bihotzerrea kentzeko pastila batzuk emango dizkizut. Tori erre-zeta eta hartu pastila bat otordu nagusien ondoren, bazkaldu eta afaldu ondoren, alegia. Dena den, hurrengo astean zehar hobekuntzarik somatzen ez baduzu, etorri berriro.
 Gaixoa: Ederki, eskerrik asko, agur.
 Sendag: Agur, bai.



Soluzioak: C

		BAI	EZ			BAI	EZ
1	Zorabioak		X	6	Beherakoa		X
2	Botalarria		X	7	Sabela handiturik	X	
3	Sabeleko mina	X		8	Eztula		X
4	Hotzeria		X	9	Idorreria		X
5	Bihotzerrea	X		10	Bizkarreko mina		X

Soluzioak: D

PEPCID

N. Maiztasuna

NOZIOAK

Maiztasuna azaltzeko beharrezkoak diren baliabide linguistikoak:

- Lau ordutatik lau ordutara, egunean behin / bi aldiz (bitan) / bi hilabetetik hirutan...

6. Jarduera

Mina, gaixotasun gehienen muina

Idazmena

Edukiak

- **Trebetasuna:** mintzamina, batez ere.
- **Testua:** bi pertsonaren arteko elkarrizketa.

Ezaugarriak: 1.- Erregistroa: formala.
 2.- Lexikoa: aurreko jardueretan ikusitako osasun arloari buruzkoa.
 3.- Helburua: sintomak, gorputz egoerak deskribatzea.
 4.- Nozioak: aurreko jardueretan azaldutakoak.
 5.- Adierazpide linguistikoak: aurreko jardueretan azaldutakoak.

Mintzamina

Prozedura

Osasun alorreko zenbait hitz, nozio... ikasi dituzte aurreko jardueretan. Jarduera honetan hori guztia praktikatuko dute. Horretarako, hirunaka jarrita, bat txanda ematen duen administraria izango da, beste bat sendagilea eta bestea gaixoa. Aurrena gaixoak bete behar du fitxa bat dituen sintoma guztiekin, gero anbulatoria deitu behar du txanda eskatzeko. Ondoren sendagilearengana joango da bere arazoa azaltzera. Sendagileak diagnostikoa egingo dio eta botikaren bat errezetatuko dio, zenbat hartu behar duen esanez. Gero rolak aldatuko dituzte.

7. Jarduera

Egin dezagun barre pixka bat

Entzumena

Edukiak

- **Trebetasuna:** entzumena.
- **Testua:** bakarrizketak: osasun gaiarekin lotura duten txiste batzuk entzungo dituzte.

Ezaugarriak: 1.- Erregistroa: informala.
 2.- Lexikoa: osasuna arloari buruzkoa.
 3.- Helburua: barre pixka bat egitea alde batetik, eta bestetik hain kalekoa den testu mota horretara hurbiltzea.

Prozedura

HABEk duen web orriko txisteak dira proposatzen ditugunak. Osotara bost txiste dira, eta irakaslearen esku dago denak batera edo banaka entzunaraztea. Dena bukatutakoan, gal-detegitxo bat beteko dute.

Transkripzioak:

Ezin edan (Guipuzkera)

Beste gizon bat joan omen da medikutara, eta berebiziko tenblekea eskuan, eta...

- Doktore jauna, begira, azken bolada honetan eskuan daukat izugarrizko dardarizoa, eta ez dakit zergatik ote den. Eta medikuak esaten dio:
- Asko edaten al duzu?
- Asko nola edango dut? Erdia erori egiten zait eta!

Hiltzorian (Guipuzkera)

Beste gizon bat joan omen da medikutara. Atera da kontsultatik, eta, kalean dagoela, lagubatekin elkartzen [juntatzen] da:

- Joño, Jose, triste ikusten zaitut.
- Triste? Ez ezazu horrelakorik esan. Medikutatik nator orain eta.
- Bai? Eta zer esan dizu?
- Aiiiiii! Astelehenean hilko naizela.
- Joñooooo! Ez duzu ederki hasi behar astea.

Oxigenoa jarri (Guipuzkera)

Gizon batek andrea haurdun zuen, eta, klinikan zegoela, ea eduki ote duen edo kezkatuta, joan da korrika eta sartu da urgentzietara:

- Doktore jauna, doktore jauna, begira, nire andreak haurra izan du, eta ikusi nahi nuke.
 - Zein zara?
 - Xabier Martin.
 - Bai, hirugarren solairuan.
- Joaten da hirugarren solairura, eta beste ate bat ireki, eta...
- Doktore jauna, doktore jauna, nire andreak haurra izan duela eta ikusi nahi nukeela.
 - Begira, zure andrea oso ondo dago. Ez da inongo arazorik izan, baina semeak...
 - Zer pasa da, zer pasa da semearekin?
 - Ez, pasa, ez da ezer pasa. Oxigenoa jarri behar izan diogu.
 - Dioossssss! Nik Xabier jarri nahi nion eta.

Handikeria (Guipuzkera)

Beste gizon bat joan da medikutara, eta...

- Begira, doktore jauna, arazo bat daukat.
- Zer duzu, bada [ba]?
- Begira, daukat barrabila bat handituta.
- Bueno, hori normala izaten da.
- Baina... nirea ez da normala. Daukat handituta, baina handituta, e?
- Lasai, erakutsi, eta...
- Erakutsi beharra dago? Lotsa ematen dit!
- Bueno, gizona, hemen ohituta gaude horrelako gauzetan. Beraz, erakutsi, ez dago inongo...
- Baina ez barrerik egin.
- Ez, ez, ez, lasai egon. Ateratzen du barrabila, eta doktorea barrez, ja, ja, ja, ja!
- Bada [ba], orain ez dizut handitutakoa erakutsiko.

Potentzia jaitsi (Guipuzkera)

Zahar bat joan da medikutara berriz, eta...

- Doktore jauna, doktore jauna, begira potentzia sexuala jaitsi nahi nuke.
- Baina, baina, baina... zure adinean potentzia sexuala buruan egoten da.
- Bada [ba], horixe nahi dut, jaistea, jaistea.

WWW.habe.org/ikaslearengunea/txisteak

8

Jarduera

“Errezeta elektronikoa”

Edukiak

- **Trebetasuna:** irakurmena.
- **Testu mota:** azalpen testua.

Prozedura

Informazio orokorra lortu behar dute testu honen gainean. Irakurketa banaka egitea komeni da, gero laburpena egiteko aberasgarriagoa da hirunaka edo launaka jartzea.

Atzizkiak errepasatzeko aprobetxatu dugu. Oraingoan **-ari**, **-tzaile** eta **-gaitz** dira ikusiko ditugunak.

Soluzioak:

- Zertan datza *errezeta elektronikoaren* proiektu hau?

Farmaziak sartu ahal izango dira familiako mediku, pediatra eta espezialisten datu basean.

- Zein dira proiektu honek dakartzan abantailak?

- 1.- Betiko eskuko errezeta desagertuko da.
- 2.- Zaharren kasuan botikariek ere azal diezaiekete medikuak esandakoa.
- 3.- Agur medikuen letra ulergaitzari.

A. -ari (-kari, -lari). Atzizki honek agentea, jarduera profesionala adierazten du. -kari eta -lari atzizki horren aldaerak dira.

1. Bilatu aurreko testuan atzizki hori duten hitzak.

farmazilariek

botikariak

2. Erantzun galderari atzizkidun hitzak erabiliz. Nola deitzen zaio...

- | | |
|--|----------------------|
| a) zapatak egiten dituenari? | zapataria |
| b) taberna batean lan egiten duenari? | tabernaria |
| c) arraunean aritzen denari? | arraunlaria |
| d) bertsoan aritzen denari? | bertsolaria |
| e) aizkoraz enborrak moztzen dituenari? | aizkolaria |
| f) ehizan dabilenari? | ehiztaria |
| g) sukaldean aritzen denari? | sukaldaria |
| h) biblioteka batean lan egiten duenari? | bibliotekaria |
| i) Eusko Jaurlaritzako presidenteari | lehendakaria |
| j) kamioiak gidatzen dituenari? | kamioilaria |

B. -tzaile. Atzizki honek, aurrekoak bezala, zerbait egiten duena adierazten du eta aditzei eransten zaie.

1. Bilatu aurreko testuan atzizki hori duen hitza.

erabiltzailea

2. Erantzun galderi atzizkidun hitzak erabiliz. Nola deitzen zaio...

- | | | | |
|--|-------|---------------------|-------|
| a) ikertzen duenari? | _____ | ikertzailea | _____ |
| b) hiltzen duenari? | _____ | hiltzailea | _____ |
| c) erretzen duenari? | _____ | erretzailea | _____ |
| d) beste hizkuntza batera itzultzen duenari? | _____ | itzultzailea | _____ |

C. -gaitz. Atzizki honek zailtasuna, ezintasuna adierazten du.

Adibidez: sinetsi (creer)

Egunkariko berri hau erabat **sinesgaitza** da (sinesteko zaila, ezin da sinetsi).

1. Bilatu aurreko testuan atzizki hori duen hitza

ulergaitza

2. Erantzun galderi atzizkidun hitzak erabiliz. Nola deitzen zaio...

- | | | | |
|---|-------|--------------------|-------|
| a) sendatzeko zaila den gaixotasunari? | _____ | sendagaitza | _____ |
| b) aldatzeko zaila denari? | _____ | aldagaitza | _____ |
| c) egoera berrietara moldatzeko zaila denari? | _____ | moldagaitza | _____ |

9.

Jarduera

“Osasun txokoa” irratsaioa

Edukiak

- **Trebetasuna:** irakurmena.
- **Testua:** eskutitza.

Prozedura

Ulermena lantzea du helburu ariketa honek. Ematen zaien eskutitzaren paragrafoak desordenaturik daude. Zeregin honetan laguntzeko, paragrafoen edukina labur-labur jarri dugu, beraz ikasleek paragrafoak leku egokian kopiatu behar dituzte.

Irakurmena

Idazmena

Soluzioak:

1. paragrafoa

-Aurkezpena
-Irratsaioarekiko
interesa

Felix Ortiz de Mendivil naiz, zuen irratsaioaren entzule amorratu bat. Larunbatero egoten naiz zuen irratsaioa noiz hasiko zain, oso interesgarria delako eta osasunaz asko ikasten ahal delako.

2. paragrafoa

-Irratsaioaren edukiaren deskribapena

Larunbatero Julian Bereziartua medikuak entzuleek eskutizetan proposatzen dituzten gaietara erantzuna ematen die. Azalpen horiek guztiak oso interesgarriak eta oso argiak iruditzen zaizkit.

3. paragrafoa

-Irratsaioarako gaiaren proposamen eta justifikazioa

Eskutitz honen bidez datorren larunbateko gaia proposatu nahi nioke: buruko mina. Beraz, buruko minaz hitz egingo balu eskertuko nioke; izan ere askotan izaten dut buruko mina, nik eta beste askok, arazo hau oso zabaldua dagoela iruditzen baitzait.

10.

Jarduerak

Agur t'erdi**Edukiak**

- **Trebetasuna:** idazmena.
- **Testua:** eskutitza.

Prozedura

Aurreko jarduerako Felixen eskutitza eredutzat hartuta edo hartu gabe, irratira bidaltzeko gutun bat idatzi behar dute osasunari buruzko kezka, azalpen eta abarren erantzunak eskatuz. Eskutitzen gaiak desberdinak izatea komeni da, joku asko ematen baitu. Eskutitzak bukatuta daudela, irakasleak jaso, zuzendu eta gorde egin behar ditu, aurrerago (13.jardueran) erabiliko ditugu eta.

Edukiak

- **Trebetasuna:** entzumena.
- **Testua:** bakarrizketa: azalpen testua.

Ezaugarriak: 1.- Erregistroa: formala.
2.- Lexikoa: buruko minaren ingurukoa.
3.- Helburua: informazio xehea jasotzea.
4.- Adierazpide linguistikoa: denborazkoak: -(e)nean

Prozedura

Julian Bereziartua sendagileak buruko minaren inguruko azalpenak emango ditu. Informazio osoa bildu dugu eskema batean, baina zenbait informazio falta dira; izan ere horietatik dira ikasleek osatu behar dituzten ideiak. Behar adina alditan entzun dezakete.

1. Organikoen artean

1. arrazoa: buruan burmuinak ditugu eta meningeak (tela moduko batzuk) burmuinak tapatzen dituztenak.

Meningeak noiz eragiten dute mina?

Meningeak handitzen direnean

2. arrazoa: gaixotasun batek, entzefalitisak, eragiten du.

Zergatik gertatzen da entzefalitisak?

Burmuinak handitzen direlako eta buru-hezuraren kontra jotzen dutelako. Presio horren eraginez, mina sortzen da.

3. arrazoa. Kiste batzuek, onek zein txarrek, burmuinak sakatzen dituztelako eragiten da buruko mina.

2. Organikoak ez direnen artean

Askotan ez dakigu zergatik sortzen den buruko mina. Ematen du **estresak, disgusturen batek...** eragiten duela min hau. Horregatik kezka edo estresa duten pertsonak izaten dute buruko mina.

1. Minik handienetakoa ematen dutenak migrañak eta jakekak dira.

Noiz gertatzen dira migrañak eta jakekak?

Buruko zainak estutu eta zabaltzen direnean.

2. Trigeminoa buruan dugun nerbio bat da.

Noiz eragiten du trigeminoak mina?

Nerbio hori urratzen, irritatzen edo handitzen denean eragiten du mina.

Nolakoa da nerbio honek eragiten duen mina?

Min izugarria eragiten du kopetan edo aurpegian.

3. Min hau sufritzen dutenek esaten dute suizidatzeko moduko mina dela.

12.

Jarduera

Zenbat buru hainbat... buruko min

Entzumena

Mintzarena

Edukiak

- **Trebetasuna:** entzumena.
- **Testua:** elkarrizketa.

Ezaugarriak: 1.- Erregistroa: informala.
2.- Lexikoa: buruko minaren ingurukoa.
3.- Helburua: informazio xehea jasotzea.

Prozedura

Noel Elorga enpresa-gizonari egin dioten elkarrizketa entzungo dute. Ulermen xehea eskatuko zaie, baina ikasle guztiek ez dute informazio osoa jaso behar. Horretarako gela bi taldetan banatuko dugu. Batzuek *A ikaslea* fitxa izango dute eta beste batzuek *B ikaslea* fitxa. Fitxa bakoitzari dagokion informazioa jaso behar dute. Gero A eta B taldekoak elkartuko dira jaso duten informazioa konparatu eta osatzeko.

Bukatzeko, eta entzun duten eredia kontuan hartuta, solasean arituko dira taldeetan jarrita buruko minaren inguruan. Talde bakoitzak emango du ikaskideen aurrean esan dutenaren berri.

Soluzioak:**A ikaslea**

- **Askotan izaten du buruko minik?**
Askotan ez, batzuetan bakarrik.
- **Familiako beste norbaitek ere bai?**
Familiako kontua da buruko minaren arazoa, herentziaz jasotakoa. Noel Elorgaren aitona batek, amak, arreba batek... ere izaten zuten/dute buruko mina.
- **Nola kentzen du buruko mina?**
Kafe bero eta indartsu bat hartzen du eta aspirina bat ere bai, nahiz eta aspirina hartzea ez gustatu.

B ikaslea

- **Asko irauten dio buruko mina?**
Ez, gutxi. Aspirina bat hartuta laster joaten da buruko mina.
- **Zerk eragiten dio buruko mina?**
Burmuinaren atzeko zerbikalek. Batzuetan kotxean edo mendian asko ibili delako, edo goizeetan esnatzean, inolako esplikaziorik gabe. Beste batzuetan lan askoren eraginez izaten du buruko mina.
- **Zein dira beste erremedio naturalago horiek?**
Ozpina ur pixka batekin nahastu, esponja bat busti eta kopetan jarriz ere kentzen omen da. Edo horma zati batzuk esponja batean sartu eta hori kopetan jarriz. Landareetatik ateratzen diren olio esentzialak sudurretik arnastea ere beste erremedio bat da.

13.

Jarduera

Hizlari hitzak ere -ari atzizkia du

Irakurmena

Edukiak

- **Trebetasuna:** mintzamina eta idazmena.
- **Testua:** mintzamina (azalpen formala), idazmena (eskutitza).

Ezaugarriak: 1.- Erregistroa: formala.
 2.- Lexikoa: aurreko jardueretan ikusitako osasun arloari buruzkoa.
 3.- Helburua: sintomak, gorputz egoerak... deskribatzea.
 4.- Nozioak: diskurtso nozioak (diskurtso bateko fase guztiei aurre egiteko baliabideak).

Mintzamina

Prozedura

Gela bikoteka banatu ondoren, 8. jardueran prestatu dituzten eskutitzak jaso, nahastu eta bikote bati eskutitz bana eman, beraiena ez dena. Tokatu zaien eskutitzaren erantzuna prestatuko dute. Nahi bada, informazio pixka bat har daiteke entziklopedia batetik, edo bestela asmatu ere asma daiteke. Ikasleek ikaskideen aurrean azalpen formala eman ahal izateko, diskurtso nozioen eskema jarri dugu lagungarri izan dakien.

Edukiak

- **Trebetasuna:** entzumena.
- **Testua:** bi pertsonaren arteko elkarrizketa, mediku eta gaixoaren artekoa.

Ezaugarriak: 1.- Erregistroa: formala.
 2.- Lexikoa: gorputz barruko organoen izenak, gernu-analisia, odol-analisia, erradiografia, ekografia, ebakuntza, nondik operatu.
 3.- Helburua: lexiko berria (goian aipatzen dena) ikasi eta sintomak deskribatzen segitzea.

Prozedura

Entzun ondoren eta ulermen orokorra erabiliz, gorputzaren barruko organoen izenak jaso behar dituzte. Gero B ariketari ekingo diote izen berri horiek, eta beste batzuk gehiago, bereganatzeko. Horretarako marrazkiak organo horien definizioekin lotuko dituzte. Ondoren elkarrizketa berriro entzungo dute eta ulermen xehea jarriko dute martxan; izan ere informazio zehatza hartu behar dute “egia-gezurra” erako galderen bidez. Konprobazio gisa, hirugarren aldiz entzun dezakete.

Hona hemen elkarrizketaren transkripzioa:**Elkarrizketa: Sendagilea – gaixoa. Sendagilearen kontsultan**


- Sendag: Egun on! Gema, zer moduz?
- Gaixoa: Hainbestean, egun hobek izan ditut eta.
- Sendag: Zer, segitzen duzu sabeleko oinaze horiekin, ezta?
- Gaixoa: Min handia ez da, baina hor dago. Ematen du ez duela nigandik aldendu nahi.
- Sendag: Hara, hemen ditut aste hauetan egin dizkizugun proben emaitzak. Gernu eta odol-analisiak ongi daude. Erradiografian zerbait ikusten da hesteetan, baina egia esan, ez du gehiegi esaten. Ekografiak eta eskanerrak nahiko argi erakusten dute mina zerk eragiten dizun. Hara, ikusten da kiste handi xamarra duzula heste aldean. Horrek presioa egiten du hesteetan, gibelan, giltzurrunetan eta aldameneko organoetan eta mina eragiten du.
- Gaixoa: Ai ama!! Eta larria al da? Beldurrak airean nago. Betidanik izan naiz koldar samarra osasun kontuan.
- Sendag: Ez, emakume! Ez duzu beldurrik izan behar. Hori bai, kendu beharko dugu. Ebakuntza bat egin beharko dizugu. Ospitalean aste bete eta etxera!
- Gaixoa: Hesteetatik operatu? Ai ene! Ai ene! Operatu! Hitz hori entzute hutsak dardarka jartzen nau.
- Sendag: Lasai, ez dizut ukatu behar ebakuntza bat dela, hau da, kirolatik pasatu behar duzula eta horrek beti arriskua izan dezakeela. Baina lasaitzeko esango dizut ebakuntza erraza dela. Esango banizu zeurea bazalako zenbat egiten dugun...

A


Hesteak, gibela giltzurrunak.

B


Organo batzuen izenak ezagunak dira, bese batzuk, berriz, ez. Organoen definizioen arabera, jarri marzki bakoitzari dagokion organoaren izena




BURMUINAK




GILTZURRUNAK



BIRIKAK



HESTEAK



URDAILA



GIBELA



BIHOTZA

C

1. Zertara joan da Gema espezialistarengana?	EGIA	GEZURRA
Proben emaitzak ezagutzera.	X	
Sabelean min izugarria duela esatera.		X
Operatu nahi ez duela esatera.		X
2. Odol-analisiak eta gernu-analisiak ere egin dizkiote. Zein dira emaitzak?	EGIA	GEZURRA
Odol-analisia ongi dago, bestea, berriz, ez.		X
Gernu-analisia ongi dago eta bestea ere bai.	X	
Gernu-analisia da ongi dagoen bakarra.		X
3. Zer probak erakusten du argiago mina zerk eragiten dion?	EGIA	GEZURRA
Erradiografiak.		X
Ekografiak.	X	
Eskanerrak.	X	
4. Zertatik operatu behar dute?	EGIA	GEZURRA
Gibeletik.		X
Giltzurrunetatik.		X
Urdailetik.		X
Hesteetatik.	X	
5. Operatu behar dutela entzun duenean, nola erreakzionatu du?	EGIA	GEZURRA
Beldurtu da.	X	
Kezkatu da.	X	
Berdin zaio.		X
Mesfidantzaz.		X
Haserretu da.		X

15.

Jarduera

Organo-ematea

Irakurmena

Edukiak

- **Trebetasuna:** irakurmena.
- **Testua:** astekari batean argitara emandako azalpen testua.
- **Helburua:** ulermen xehea erabiliz, testua ongi ulertea.
- **Adierazpen linguistikoak:** aditzaren aspektua.

Prozedura

Lehenengo ariketa testua osatzea izango da. Aukera anitzeko galderen bidez, lokailuak, testu mailako loturak eta aspektua dira hasieran landuko dutena. Testuan irakurri dutena oinarritzat hartuko dute hurrengo jarduerarako. Testua luze xamarra denez, aldi batez egin beharrean saio batzuetan egin daiteke.

Soluzioak:

1	a) Hala ere b) Behintzat c) Ere	2	a) beraz b) gainera c) dena dela	3	a) Hala ere b) Ordea c) Lehenik eta behin
4	a) egiaztatu aurretik b) egiaztatu ondoren c) egiaztatzen ari direla	5	a) eginda daudela b) egin beharrean c) egiten ari direla	6	a) amaitu aurretik b) amaitzen ari direla c) amaitzean
7	a) hala ere b) berriz c) orduan	8	a) hau da b) izan ere c) ere bai	9	a) Alde batetik b) Printzipioz c) Azkenik
10	a) hots b) zera c) hortaz	11	a) hots b) baina c) noski		

16.
Jarduera**Transplanteen inguruan**

Mintzamena

Edukiak

- **Trebetasuna:** mintzamena.
- **Testua:** taldeko nahiz bakarkako mintza.

Ezaugarriak: 1.- Erregistroa: formala.
2.- Lexikoa: aurreko jardueran ikusitako osasun arloari buruzkoa.
3.- Helburua: aurreko jarduerako artikulua laburtu eta iritziak trukitzea.

Prozedura

Taldeetan jarrita, talde bakoitzeko partaide guztien artean laburbilduko dituzte aurreko artikuluan transplanteetan segitzen diren pausuak. Azalpen hau formalagoa izatea komeni da. Gero gainerako galderari erantzungo diete eta hemen iritziak eta usteak bota behar dituztenez, totoa informala izango da. Talde guztiek bukatzen dutenean, ongi legoke talde bakoitzeari zer komentatu den jasotzea.

17.
Jarduera**Jolasean arituko gara oraingoan**

Mintzamena

Edukiak

- **Trebetasuna:** mintzamena.
- **Testua:** jokua.
- **Helburuak:** alde batetik ikastunitatean zehar ikasi duten lexikoa errepasatzea eta bestetik deklinabide kasu batzuk ikasi edo errepasatzea.
- **Adierazpide linguistikoak:** -deklinabide kasuak: nondik, nora, norengandik, norengana, singularrean nahiz pluralean.
-maiztasuna adierazteko behar diren baliabideak.

Prozedura

Arauk "oka" guztiek dituztenak dira. Taldeka jarriko dira (launaka edo) jolasean aritzeko. Dadoa botatzen duten aldioro nondik nora / norengandik norengana (sg/pl) doazen esan behar dute. Hau garbi utzi behar zaie arauak azaltzerakoan.

Lau kasila mota aurkitutuko dute:

- Galdera ikurra dutenak: hemen erortzean okarekin batera doan txartel multzotik (buruz behera jarrita) bat hartu behar dute. Galderak sendagileek botikak errezetatzen dituztenean, maiztasuna eta kantitatearen berri ematen dituztenak dira. Gaztekeraz daude, eta ikasleek momentuan itzuliko dituzte. Huts egiten badute, txanda bat jokatu gabe geratuko dira. Asmatzen badute, aurrera segituko dute.
- Ospitaleetako mediku eta gauzen izenak biltzen dituztenak: hauek letra beltza dute, eta hemen eroriz gero, nondik nora doazen esan behar dute. Ongi esan arte ez dago aurrera segitzerik, baina hemen ez dago penalizaziorik.
- Letra gorria dutenak: kasila hauetan osasun arazoren batekin egingo dute topo. Beraz, hemen eroriz gero, kasilean bertan jartzen du zer penalizazio duen.
- Letra urdina dutenak: hemen eroriz gero, atzera edo aurrera joango dira. Hemen ere norrengandik norengana esan behar dute.

18.

Jarduera

Ahotsa jartzen

Idazmena

Edukiak

- **Trebetasunak:** idazmena eta mintzamina.

Prozedura

Binaka jarrita, soinurik gabeko bideo-sekuentzia bat ikusiko dute. Irudiekin bat datorren elkarrizketa bat asmatuko dute. Bukatutakoan, bikote bakoitzak (edo hautaketa bat eginda, irakasleen arabera betiere) besteen aurrean irakurriko du telebistako irudiak ikusten ari direla. Amaitzeko, sekuentzia osoa (soinuarekin) ikusiko dute.

Mintzamina

19.

Jarduera

Petrikiloen jakinduria

Entzumena

Edukiak

- **Trebetasuna:** entzumena.
- **Testua:** herri sendagintzaren inguruko dokumentalaren zati batzuk ikusiko dituzte.

Ezaugarriak: 1.- Erregistroa: formala.
2.- Lexikoa: sendabelarrak, sasimedikuak...
3.- Helburua: alderdi soziokulturala indartzeaz gainera ulermena lantzea.

Prozedura

Ulermen xehea nahiz orokorra jarri behar dute jokoan. Ikasten den hizkuntzarekin batera alderdi kulturala indartu eta sustatu behar da. Ikasleek ezagutu behar dute petrikilo hauek gure kulturaren parte direla. Galdera batzuei erantzun behar diete.

Soluzioak:

- 1) Historian (erromatarren garaian, Erdi Aroan) zer nolako fama zuten petrikilo eta herri sendatzaileek? **Ona. Aurreikusle eta sendagile onak zirela aipatzen da erromatarren izkribuetan. Erdi Aroan fama hori areagotu egin zen euskal azti eta sorgin kontuekin.**
- 2) Euskal petrikiloak batik bat zertaz baliatzen dira sendabideak egiteko? **Sendabelar, ukendu eta edariez.**
- 3) Kamararen aurrean lan egitea gustuko dute? **Orokorrean ez.**
- 4) Nola ikasi dute petrikilo gehienek? **Familiako norbaitengandik jaso dute.**
- 5) Garai batean uste izaten zen jakinduria hau:
 - data jakin batzuetan jaiotzen zirenek hartzen zutela? **Bai**
 - akats fisikoak ez zituztenek hartzen ahal zutela? **Ez. Akats fisikoak zituztenek.**
- 6) Zegamako Solita izena duena euskal petrikilo horietariko bat da. Zer ematen die gaixoei ondoeza sendatzeko? **Belarrak eta ukenduak.**
- 7) Zein da Solitaren espezialitatea? **Azaleko arazoak.**
- 8) Solitak kontsulta kobratzen die bisitan joaten zaizkionei? **Ez. Ematen dituen belarrak eta ukenduak kobratzen ditu.**
- 9) Solitak zenbatean saltzen ditu bere ukenduak? **Prezio askotakoak daude.**
- 10) Ramona Ayesta beste petrikilo bat da. Zein da bere espezialitatea? **Bihurdurak, zaintiratuak.**
- 11) Ramonak fede eta pazientziarekin bakarrik sendatzen du? **Ez. Berak prestatzen dituen ukenduekin.**
- 12) Mikel gaztea zertara joaten da Elisabete Zurutuzarengana? **Lurrina arnastera.**
- 13) Zein dira Mikelen osasun arazoak? **Gibelekoak eta hanketan indar falta.**

20.
Jarduera

Petrikiloak

Mintzarena

Edukiak

- **Trebetasuna:** mintzarena.
- **Testua:** taldeko nahiz bakarkako mintza.

Ezaugarriak: 1.- Erregistroa: formala.
2.- Lexikoa: aurreko jardueran ikusitakoa.
3.- Helburua: iritziak trukatzea.

Prozedura

Binaka jarrita, galderei erantzungo diete eta beren iritziak eta usteak bota behar dituzte. Bikote guztiek bukatzen dutenean, ongi legoke talde bakoitzean zer komentatu den jasotzea.

21.
Jarduera

Kontu txikiak

Entzumena

Edukiak

- **Trebetasuna:** entzumena.
- **Testua:** mina sendatzeko zenbait tokitan hurrei kantatzen zaizkien kantak.

Arian-arian, edo zer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Helburua

Ardatz nagusia ikaslea da, bera baita ikas-prozesuaren partaide eta aktore nagusia. Ikaslea bere ikas-prozesuaz jabetzen den heinean, zergatik eta zertarako ikasten duen, nora iritsi nahi duen ... jakitun den heinean, arrakastatsuagoa izango da bere ikas-prozesua. Ikaslearen autonomia bultzatzera, hain zuzen ere, dator azkeneko atal hau.

Prozedura

Ikastunitatea bukatu ondoren, ikasleek, binaka edo hirunaka jarrita, beteko dute azken fitxa. Gero, besteen aurrean bikote bakoitzak eman dezake ikasi duenaren berri; hortaz, irakasleak gogoetarako beta ematen duen ariketa hau tresnatzat har dezake ikasleak adierazpide linguistiko zein pragmatikoak bereganatu dituen ala ez ikusteko.